

Joseba Azkarraga Etxagikael

SOZIOLOGOA, MU-HUHEZIKO IRAKASLEA

Amaitu da festa

Badirudi apokalipsiaren lau zaldunek mundua konkistatu dutela ditzosozko aro globalean. Profeziaren arabera, bata zaldi beltza zen: gosetea. Bestea, zaldi gorria: gerra. Hirugarrena, horia: izurritea (beharbada, kutsadura gaurko hizkuntzan). Azkenik, zaldi zuria: kristautasun faltsua.

Lehen hiru zaldien irrintziak urrunetik entzuten dira. Zuria da, agian, enigmatikoa: fede faltsuaren ideia, apostolu gezurtia. Hori ere gure artean daukagu, ordea: mundua luzaroan gobernatu duen merkatu librearen ezina eta gezurra. 1929an jausi zen eta, harri berean estropuz behin egitea batere sofistikatu ez denez, hementxe berriro mendebaldarron biziera dardarizo betean jarri(ko) duen lurrikara. Askorentzat, amaitu zen festa.

Eta ez dirudi Wall Street-eko yatedunak izango direnik, haizearen kontra txiza egitearen ondorioz, festatik erretiratu beharko diren bakarrak. Klase ertaina ondo zipriztindu dezake honek. Ohituak geunden ikustera kapitalismo finantzario globalaren logika ustelak zelan hondoratzen zituen planetako beste geografikak. Guk, bitartean, *Freixenet* Gabonetan, otarrainxkak urte guztian eta, *low cost* hegaldiekin, Londresen asteburuak.

Gezurra sakonagoa ere bada: Mendebaldeko zibilizazioaren oinarriak eurak daude usteldurik (ez bere forma ekonomiko jakin



KARLOS CORBELLA

bat, neoliberalismoa); etengabeko hazkunde ekonomikoan oinarrituriko gizarteak ez du etorkizunik. Urteak eman ditugu esaten biziera horrek amiltzera eroango gaituela, ezin duela iraun, ez lukeela iraun beharko. Heldu ote den diskurtsoa praxiarekin lotzeko ordua. Une apokaliptiko honetatik atera daitekeen gauzarik onena litzateke.

Paradoxa galanta bizi dugu: mundu post-sozialista ei da gurea eta, aldi berean, kapitalismoa sekula ez da hain ezgauza izan ganoraz erantzuteko gizadiaren etorkizunari. Inteligentzia kapitalista sekula baino gutxiago da etorkizunerako tresna baliotsua.

Marraskiloari ikasi behar genioke. Ivan Illich-ek kontatu zigun zelan eraiki ohi duen bere eskola. Xamurtasunez eransten ditu eskolaren espirak. Bata bestearen atzetik gehitzen ditu gero eta zabalagoak diren espirok. Kolpean, eten egiten du lana. Kiribiltzen hasten da, uzkuritzen. Oraingoan animalia txikiagotuz doa. Izan ere, puntu batetik aurrera espira bakar bat gehiago gehituz gero, halako hamasei haziko litzateke. Eta horrek gainkarga eragingo lioke. Bizi beharko litzateke soil-soilik eskolaren hazkundeak sorturiko eragozpenei aurre egiteko.

Mendebaldeko marraskiloaren likina nahi du krema egiteko. Ona omen, azaleko zimurak disimulatzen. ■

« Mendebaldeko marraskiloaren

likina nahi du krema egiteko.

Ona omen, azaleko zimurak

disimulatzen. »

TXANDAN

Igor Estankona

Behin sektan...



Behin sektan sarturik ezinezkoa egiten zaie ateratzea, eta ez dute

bihurtu nahi, ez egia esan, baina uraren froga egiten zaie, haren gainean hondoratu barik ibiltzen direlarik, eta beste zantzu batzuk ere bai, infamatuak gogor tematzen dira ezetzean eta inoiz konturatu barik ateratzen zaie badirela, nahiz eta hurrengo egunean ustea aldatu eta ezetz esan, baina gero diote beste batzuk ere markaturik daudela eta izenak botatzen dituzte eta inork esan izan du inoiz, deskuidaturik, ezin zezakeela esan.

Eta hurrengo egunean galdetu eta ukatu. Horrela izaten dira saioak.

Tormentu eta kordelekin aitortzen dute badirela, baina izatez benetan ez direla. Tentuz ibili behar da ha ta guzti be, deabruak limurtzen ditu-ta uka dezaten egia, euren delituak astunagoak izan daitezkeen sakrilegio horrekin.

Baina tormentu eta kordelekin aitortzen dute badirela.

* *Relación de las maléficas de Cantabria*. R.M. Azkuek bildua (bertsio libre). ■